

... eta etxeakoak

Herriko Ekon eta Kañeria 13 taldeek kontzertua eskainiko dute sanjoanetan



Kañeria 13

Poliki-poliki bere burua ezagutzera ematen ari den Garagartzako talde kementsua da. 1996. urtean beste egitasmo batean batu eta Arrasateko inguruetan jotzen aritu ondoren, kideen artean aldaketa batzuk izan ziren eta talde berria sortu zuten duela urte gutxi.

Aspaldiko punk garaia gogorarazten dituen abeslari bortitz batek euskaraz zein gaztelaniaz istorio gordinak kontatu eta punk-rocketik gertu dauden kantak jotzen dituzte, lotsa gutxiarekin. Berri hau atera orduko kalean izango dute beren lehenengo lana —finantzaketa faltarengatik lehenago kaleratu ez dutena—. Dagoeneko Slack Jaw zein Stiff Little Fingers-en pareko taldeekin batera aritu izan dira.

Ekainak 24, Monterron parkean.

Ekon

Dagoeneko dezente ezaguna da Arrasate eta inguruetakoa lagunez osatutako talde bizi hau. Hasieratik zuzeneko emanaldiei indarra eta ikusgarritasun nabarmena ematen saiatu eta betiko metalarren eta teknologia berrien uztarketaren bitartez, nola baiteko arrakasta jaso zuten. Hala, beraien *Zurrumbilo kaotikoak* eman zuen zer esanik, eta Euskal Herriko agertoki ugari bete izan dituzte. Iaz taldean bi abeslari berri sartu ziren, rapeatutako doinuei melodia eta ahots finak batu guran. Durangorako kaleratutako *Etnia 2000* lanean islatu da aldaketa hori.

Ekainak 24, Monterron parkean.



Kañeria 13 eta Ekon arrasatearren doinuek bertako eta inguruko zaleak bilduko dituzte bihar.

Numen

Arrasateko talde honek zeresan dezente eman du azken aldian. Aiotz taldeko kide batzuk eratu zuten *black death* melodikoaren ildoan jorratzeko. Inguruko gaztetxe zein aretoetan zenbait kontzertu eman ondoren, iazko Bilboko Hiria lehiaketa ospetsuan sailkatu eta *Haize sorginduen intziriak* izeneko mini-CD txukuna kaleratu berri dute, zeinak estilo horretako talde euskaldun esanguratsuen artean jarri dituen.

Anger

1997-1998 artean sortutako talde honek ibilbide motza baina bizia izan du. Metalarren, heavyaren, hardcorea-



ren, death-aren eta hip hop-euskaraz abesteko gai izan dira, eta, Arrasateko inguruetan zein Epainian zenbait kontzertu eman ondoren, uda honetan Shot! estudioetan lan bat grabatzera sartzeko asmoa dute.

Offset

Musakola auzokoa dugu gazte talde hau. Aiotz talde-tik pasatutako kide batzuk talde honekin hasi eta oso kontzertu gutxi eman ondoren, metal musikako joera

berriak bortizki plazaratu dituzte inguruetan egindako zuzeneko emanaldi bakane-tan. Hauek ere uda honetan bertan Shot! estudioetan lan bat grabatzeko asmoa daukate.

Eskizofrenia Rock

Zenbait urtetan hirukote bezala aritu eta Euskal Herriko gaztetxe zein beste edozein txokotan Eskorbuto Josu eta Juanmaren arimak berpizten aritu ondoren, maketa bat kaleratu zuten iaz. Berehala, Arrasateko punk zale ezagun bat taldeko abeslari bilakatu zen, eta bizpahiru egunetan disko bat grabatu zuten. Diskoa oraindik kaleratzear dago.

El Desvan del Macho

90eko hamarkadaren hasieran sortu zen talde hau. Euskal Herritik kanpo ezagunak badira ere, herrian bertan jende gutxi ezagutzen du hirukote hau. Dagoeneko bi disko eta Ep bat kaleratu dituzte Madrilgo Nuevos Medios eta Alehop disketxeekin, eta zeharo sailkaezinak direla esan daiteke. Abian omen dute hirugarren lana, eta beren emanaldi bat ikusteak ez du parekorik.

Industria Dolor

Aski ezezaguna den Arrasateko beste talde bitxi bat. Talde hau ere hiru lagunek osatzen dute, eta proposamen berritzaile bat dakarkigute. Doinu elektroniko, baxu eta ahotsaren bitartez, bi maketa prestatu dituzte dagoeneko.

Elena

Orain
taila handietan
ere
berezitua (48-64)

Bizkaia etorbidea, 1
Tel.: 943 77 14 24
ARRASATE

AKADEMIA

BASTIDA

- INFORMATIKA
- MEKANOGRFIA
- KONTABILITATEA
- GIZA BALIABIDEEN ADMINISTRAZIOA
- INGENIERITZA-ko KLASEAK
- ETA BESTE BATZUK

UDAKO IKASTAROAK
2000

Araba etorb., 3 - 1.
20500 ARRASATE

Tel.: 943 79 35 33 • Faxa: 943 79 06 28
e-mail: bastida@tsai.es

Esk

ESKER SINDIKALEN KONBERJENTZIA

Bizkorra, zuzena, eraginkorra

Garibai, 14 - 4. • ARRASATE • Tel.: 943 79 92 43
Artekale 1 - behe • BERGARA • Tel.: 943 76 13 65